



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko urriaren 21a

101. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, bizitzaren amaieran pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (2. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroan Animaliak Babestekoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza eman diezaien eskola-adinean ezgaitasun intelektuala eta mendetasuna duten haurrei. Osoko Bilkurak onetsia (17. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lurralde Koordinazioko Europako Taldeak –Nafarroako, Euskal Autonomia Erkidegoko, Aragoiko eta Akitaniako udalen, taldeen, elkarteen edo zuzenbide publikoko beste edozein erakunderen artekoak– sortzea bultzatzea dezan eta horietan parte har dezan. Osoko Bilkurak onetsia (18. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abenduaren 30a baino lehen aurkez dezan Nafarroako Herritarren Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak onetsia (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zor publikoa balira bezala zenbatu ditzan itzaleko bidesariaren bidez finantzatutako azpiegiturretatik heldu diren obligazioak. Osoko Bilkurak bazter utzia (19. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, bizitzaren amaieran pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzkoa.**

### *OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Legebiltzarrak, 2010eko urriaren 14an egindako Osoko Bilkuran, bizitzaren amaieran pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu zuen eta 2010eko uztailaren 2ko

76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko urriaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroan Animaliak Babestekoa.**

### *AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroan Animaliak Babesteko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2010eko maiatzaren 13ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko urriaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **1. ZUZENKETA**

#### **SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA**

#### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1. artikulua ordez beste hau jartzea proposatzen dugu:

“1. artikulua. Xedea eta esparrua.

1. Lege honen xedea da arauak ezartzea etxe-animaliak, animalia basati etxekotuak edo gatibu daudenak edukitzeko eta babesteko Nafarroako Foru Komunitatean, kontuan izan gabe bertan erroldatuta edo erregistratuta dauden eta non bizi diren beren jabe edo edukizaille diren pertsonak.

2. Lege honek helburu hauek gauzatu nahi ditu:

a) Izaki bizidunaren izaerarekin bat datorren ongizate maila bat lortzea animalientzat, eta izaera horrek berez dakartzan eskubideak biltzea.

b) Animalienaganako tratu egokia bateragarria gitea gizakiek animaliez gozatzearekin.

c) Bidea ematea animaliak erabiliak izan daitezzen gizakiaren ongizate ekonomiko, fisikoa eta soziala hobetzeko, baina betiere animaliei eragin gabe beharrezkoa ez den min edo kalterik.

d) Arrisku egoerak ekiditea, bai eta potentzialki arriskutsuak diren animalien erabilera eta kontrol desegokiaren ondorioz pertsoneri eragin dakizkiekeen kalteak ere.

e) Animalien mundua ezagut dadin sustatzea.

f) Gizakiak sentsibilizatzea eta hezteko lege honek biltzen dituen balioei eta jokabideei dagokienez.”

Zioak: Iruditzen zaigu legearen xedea argiago gelditzen dela eta lege testua hobetu egiten duela.

**2. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“1. Foru lege honen xedea da etxe-animalien eta fauna aloktonoaren babeserako arauak ezartzea, animalien babes- eta ongizate-mailarik handiena lortzeko eta animalien defentsan eta zaintzan jokabide arduratsua eta gizalegezkia sustatzeko.

Lege hau aplikatuko zaie Nafarroan modu iraunkorrean edo aldi baterako dauden animaliei, kontuan hartu gabe animalion jabeak edo edukitzaileak non bizi diren.”

Zioak: Idatz-zati honetan legearen xedea zehaztu bai, baina ez da espezifikatzen zein diren aplikazio eremuan babestu beharreko subjektuak.

**3. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluari beste idatz-zati bat, 2 bis, gehitzeko zuzenketa.

Beste idatz-zati bat gehitu eta gainerako idatz-zatiak berriro zenbakituko lirateke.

“2 bis. Animaliak izaki bizidunak dira, sentsibilitate fisikoa eta psikikoa dute, borondatezko mugimendua ere bai, eta haiei eman beharreko tratuak, dituzten behar etologikoei erreparatuta funtsean, animalien ongizatea lortzera bideratua egon behar du. Horregatik, inork ez die animaliei sufrimendurik eragin edo tratu txarrik eman behar, ezta antsietate edo beldur egoerarik eragin behar ere.”

Zioak: 1. artikuluko 1. idatz-zatian legearen xedea, helburua, zehaztu bai, baina ez da espezifikatzen zein printzipio dituen oinarri.

**4. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Beste artikulua bat, 1. bis, gehitzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“1. bis artikulua. Kanpoan uzten direnak eta salbuespenak

1. Ingurune naturalean dauden basa faunako espezieak eta indarreko xedapenek ehizatze

edo arrantzatze baimendutakoak, arlo horretako berriazko legediaren pean egonen dira, eta gainerako gauza guztietarako lege hau aplikatuko zaie.

2. Lege hau hurrengo gaietan aplikatuko da, indarrean den legedian ezarritakoa gorabehera:

a) Animaliak erabiltzea esperimenterako eta bestelako helburu zientifiko batzuetarako.

b) Zezenketak eta entzierroak.

c) Uso-tiroko lehiaketak, federazioak kontrolatuak eta abeltzaintzaren arloan eskuduna den departamentuak baimenduak.”

Zioak: Lege testua hobetzen du.

**5. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Beste artikulua bat, 1 ter, gehitzeko zuzenketa; testu hau izanen du:

“1. ter artikulua.

3. artikulua. Definizioak.

Lege honetan ezarritakoari dagokionez, ondoak hartuko dira animalia, establezimendu eta profesionaltzat:

1. Animaliak:

Etxe-animaliak: pertsonekin hazi, ugaltu eta bizi ohi diren espezieetakoak.

Lagun egiteko animaliak: etxean bertan eduki ohi diren etxeko animaliak, haien konpainia lortzearren; txakurrak eta katuak, edozein dela ere haien helburua, lagun egiteko animaliatzat hartuko dira lege honi dagokionez.

Animalia basati etxekotuak: basati eta libre jaiota ere, pertsonen begien bistan eta konpainian ohitu eta, azkenean, haien beharra dutenak bizirik irauteko.

Gatibu dauden animalia basatiak: diren modukoak izategatik libreak direnak, eta, beren ingurune naturalean harrapatuta, gizakiaren menpe gelditzen direnak erabat eta modu iraunkorrean.

Animalia alderraia: Bere senaren arabera mugitzen den animalia oro, jabearen edo edukitzailearen kontrolatik kanpo.

Txakur alderraia: non eta ez den ehizan edo artaldea zaintzen ari, egoera hauetakoren batean dagoen txakur oro: bere jabearen benetako zain-

tzapean ez dagoena, jabearen ahotsaren edo txakurrari deitzeko balio duen soinu tresnaren irismenetik kanpo dagoena, edo jabea edo edukizaillea dagoen lekutik 100 metro baino gehiago urrunduta dagoena.

Katu alderrai: Bere jabearen bizitokitik 1.000 metrora baino gehiagora aurkitutako katu oro, ez badago jabearen zuzeneko kontrolpean, bai eta bide publikoan zein beste norbaiten jabetzako toki batean jaso eta jabe ezagunik ez duen katu oro.

Animalia abandonatua: alderrai zebilela harripatu eta, behin indarreko araudiak ezarritako epea amaituta, jabeari itzuli ezin zaion animalia oro, hark ez duelako erreklamatu edo harekin kontaktuan jartzerik izan ez delako. Potentzialki arriskutsuak diren animaliak: etxeko animalia gisa edo lagun egiteko animalia gisa erabiltzen diren basa fauna-ko animalia oro, duten agresibitatea gorabehera, eta, diren espeziekoak edo arrazakoak izanda, heriotza edo lesioak eragin diezazkieketenak pertsoneri nahiz beste animalia batzuei, bai eta kalteak gauzei.

Potentzialki arriskutsutzat hartuko dira, era berean, erregelamenduz ezarritako etxeko animaliak zein lagun egiteko animaliak, bereziki txakur-espeziekoak.

## 2. Establezimenduak:

Establezimendua: animaliak bizi, eduki edo hazten diren edozein esparru, instalazio, eraikin edo eraikin-multzo, kontuan hartuz, baita ere, erabat itxita edo estalita ez dauden alboko eraikin eta esparruak, bai eta animaliak bizi, eduki edo hazten diren instalazio mugikorrek ere.

Gune zoologikoa. Animalia indigenen edo exotikoen bildumak hartzen dituztenak; helburuak izan daitezke zientifikoak, kulturalak, jostetakoak, edo helburua izan daiteke animalioi ugaltzea, berreskuratzea, egokiaraztea edo kontserbatzea. Gune zoologikotzat hartuko dira parke eta lorategi zoologikoak, zoosafariak, erreserba zoologikoak edo animalia bankuak, bilduma zoologiko pribatuak eta bestelako multzo zoologikoak.

Lagun egiteko animalien sustapenerako eta zaintzarako zentroa: establezimendu bat helburu duena lagun egiteko animalien ugalketa, ustiaketa, tratamendu higienikoa, ostatatzea –aldi baterakoa edo iraunkorra– eta salmenta.

Animaliak gordailatzeko zentroa: establezimendu bat helburu nagusi duena txakur eta katu alderriak jasotzea eta horiek, legediak ezartzen duen epean eta moduan, ostatatzea, mantentzea, zaintzea eta araudiak ezarritako tratamendu higieniko eta osasunekoak ematea.

Aterpetxea: irabazi asmorik gabeko establezimendua, animalien babesaren arloan lan egiten duen fundazio edo elkarte batek –agintari eskudunek onartua– zuzendua, eta animaliak gordailatzeko zentro batetik datozen animaliak hartzen dituen, han egoteko ezarritako epeak amaitzen direnean, edo partikularren animaliak hartzen dituen.

Albaitaritzako establezimenduak: albaitari baten arduraren pean animalien edozein tratamendu kirurgiko, terapeutiko, bai eta ospitaleratzeak ere, egin ohi diren establezimenduak.

## 3. Profesionalak:

Akreditatutako albaitaria: titulazio hori duen profesional oro, lege hau oinarri hartuta egin beharko diren zenbait zereginetarako baimendua abeltzaintzaren arloan eskuduna den departamentuaren aldetik.

4. artikulua. Erregistro informatiko zentralizatu.

1. Abeltzaintzaren arloan eskuduna den departamentuan erregistro informatiko zentralizatu bat sortuko da, eta haren antolamendua eta funtzionamendua erregelamenduz ezarriko da; edonola ere, koordinatuta egon beharko du kontzejuetako erroldekin eta haiek baimendutako pertsona fisikoek edo juridikoek dituztenekin.

2. Erregistroak, gutxienez ere, atal hauek izan behar ditu:

Animalia identifikatuak eta beren jabeak.

Errolda, kontzejuka

Lege honek xede dituen animaliekin zerikusia duten establezimenduak.

Potentzialki arriskutsuak diren animaliak.

Akreditatutako albaitariak.

3. Udalek beren eskumeneko erroldak erregistrora igorriko dituzte, jasota gera daitezenean.”

Zioak: Legearen testua hobetu eta 1. kapitulua askoz ere argiago uzten du.

## 6. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluan 4. idatz-zatia osorik kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proposamenean garapen-arauak eman direla aipatzen da, baina egon badaude; hain zuzen ere, Esperimentaziorako eta beste helburu

zientifiko batzuetarako erabiltzen diren animalien babesari buruzko urriaren 10eko 1201/2005 Errege Dekretua, zeina 7/1994 Foru Legearen ondotik argitaratu baitzen. Errege dekretu hori oinarritzko izaerarekin eman zen, eta Konstituzioak Estatuari aitorturiko eskumen eskusiboen babesean; Konstituzioaren arabera, izan ere, Estatuaren eskumenekoak dira jardun ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa (149.1.138 artikulua), bai eta osasunaren arloko oinarriak eta koordinazio orokorra ere (149.1.168 artikulua). Arautze horrekin Europako zuzentarauen transposizioa egiten da, abiapuntu hartuta Europako Kontseiluak emandako irizpide berrienak eta babesgarrienak.

## 7. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa.

2. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letra aldatzea proposatzen da. Honako testu hau izanen du:

“b) Kontsumorako edo gizakiarentzat baliagarri den produkturen bat eskuratzeko diren animaliak akabatzean ankerkeriaz jokatzeko edo metodo orokorrak nahiz justifikatu gabeko mina eragiten dutenak erabiltzea arauetan ezarritako aginduak urratuz, foru lege honetakoak nahiz animaliak hiltzen diren unerako babes-arauak ezartzen dituzten Estatuko eta Europako araudietakoak.”

## 8. ZUZENKETA

### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa.

2. artikuluko 1. idatz-zatiaren ordeztu beste hau jartzea proposatzen dugu:

“2.1 artikulua. Animalia orearen jabeak animalia eduki behar du espezieak berezkoak dituen inperatibo biologikoen araberrako egoeran; jabeak animalia garapen normalerako behar duen elikadura emanen dio, egokia eta nahikoa, albaitaritzalaguntza eta bizitokia ere bai, eta, halaber, berezko ezaugarrien araberrako atsedena eta eguraspena.”

Zioak: Lege testua hobetu egiten du gure ustez.

## 9. ZUZENKETA

### IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AUR- KEZTUA

2. artikuluko idatz-zatiaren amaieran honako testu hau gehitzeko zuzenketa:

“..., betiere Animalien Eskubideen Deklarazio Uibertsalaren premisaren pean.”

Zioak: Gure ustez, egokia da testuari hori gehitzea.

## 10. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 2. idatz-zatiko i) letra aldatzeko zuzenketa.

“i) Animaliak 18 urteko adinaz beherakoei eta ezgaituei saltzea, guraso-ahala edo jagoletza duten pertsonen baimenik gabe.”

Zioak: Adin nagusitasuna gehienetan 18 urte-tan dagoenez ezarrita, hori litzateke animalia baten jabe izateko gutxieneko adina; izan ere, adingabe baten arduragabetasuna arriskutsua izan daiteke besteentzat.

## 11. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 2. idatz-zatiko l) letra aldatzeko zuzenketa.

“l) Beti edo egunaren zatirik handienean zakurrak eta ekidoak edukitzea lotuta, itxita edo beharrezkoa duten mugimendua modu iraunkorrean mugatuta.”

Zioak: Sarritan izaten ditugu kasuak non animaliak balkoietan edo etxabeetan modu iraunkorrean eduki ohi diren itxita; hori animaliei tratu txarrrak ematea da, batzuetan osasun psikikoa ere galtzen baitute betiko. Horrelako kasuetan, zaldiak, poneyak, astoak eta abar ere ikusi ohi dira, eta, hala, pentsatzen dugu debekua horietara ere zabaldu behar dela. Animalio, zakurrek bezala, egunero daukate irteteko eta ariketa egiteko beharra, eta horrek legean agertu behar du.

**12. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

3. artikulua honako testu honekin ordeztzeko zuzenketa:

“3. artikulua. Animalien garraioa.

1. Lege honen ondorioetarako, honakoa hartuko da garraiotzat: garraibide bat tarteko dela egiten den animalia-lekualdaketa oro, abiaburutik helmugaraino, barne direla animaliak kargatzeko eta deskargatzeko operazio guztiak, tarteko geldialdiak, horietan animaliak deskargatu edo ez, animalien zainketarako, atsedenerako eta animalioi jaten nahiz edaten emateko egin daitezkeen operazio guztiak eta gerta daitezkeen garraibide-aldaketa guztiak.

2. Lege honek xede dituen animalien garraioa espezie bakoitzaren berezitasunen arabera egin beharko da, eta animalien identifikazio eta erregistro baldintzak bete beharko dira, bai eta araudi espezifikoan exijitzen diren higie- eta osasun-baldintzak eta erregelamenduz ezartzen diren bestelako baldintzak ere.

Lagun egiteko animaliak ibilgailu pribatuetan garraiatzen direnean eta ibilgailuok aparkatuta uzten direnean, animaliak aireztatze eta tenperatura egokiak izanen ditu.

3. Era berean, lagun egiteko animaliak garraibide publikoetan sarbidea izateari buruzko nondik norakoak erregelamenduz arautuko dira; betiere, animaliak egoera optimoan egonen dira higiearen eta osasunaren aldetik, eta hitzartutako baldintzak bete beharko dituzte.

4. Ikusmen urria dutenentzako txakur gidariei dagokienez, eta berdin bestelako urritasun psikiko edo fisikoak dituztenei laguntza ematen dieten beste animalia batzuei dagokienez, baldin eta laguntzen duten pertsonarekin edo animalia-hezitzailearekin badoaz, kasuko legediak ezarritakoari eginen zaio jaramon.”

Zioak: Iruditzen zaigu legearen testua hobetu egiten duela, eta askoz argiago uzten duela animalien garraioari buruzko araubidea.

**13. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Beste artikulua bat, 7. bis, gehitzeko zuzenketa.

“7. bis artikulua. Animalia populazioen kontrola.

1. Kaltegarritzat jotzen diren animalien kontrol espezifikoak egin daitezke, betiere babestutako espezieetako aleak ez badira. Uztak babestea helburu duten praktikek ez dute ondorio izaneren, inondik ere, kaltegarriak ez diren animalien suntsitze masiborik. Hala ere, kalteak ekiditeko beste modurik ez dagoenetan, Ingurumen Departamentuak baimendu dezake, modu arrazoituan eta salbuespen gisa, babestutako espezieen aleak harrapatzea edo espezie horiek kontrolatzea.

2. Kaleko katuak eta hiri-usoak lege honek babestutako etxe-animaliatza hartuko dira, eta horrek esan nahi du animalioek eskubidea dutela kolonia behar bezala kontrolatuetan –populazioaren eta osasunaren aldetik– bizitzeko. Kontrol- eta babes-zerbitzu hori gauzatzeko, Foru Administrazioak eta toki administrazioek lankidetzak hitzarmenak egiten dituzte animaliak babesteko elkarteekin; elkarteok bitartekari lana egiten dute udalen eta koloniak zaintzen dituzten pertsonen artean. Debekatuta dago kontratatutako enpresek edo udaletako langileek animalioek sistematikoki harrapatzea eta akabatzea.

3. Debekatuta dago gai itsasgarriak erabiltzea animalia ornodunak kontrolatzeko, lika izan ezik; horretarako, Ingurumen Departamentuaren baimen berezia beharko da, eta, baldintzak zorrozki kontrolatuta, erabiliko da modu selektiboan eta txori kopuru txikietarako, birigarroak ehizatze eta txori fringilidoak bizirik harrapatze.”

Zioak: Lege testua hobetzen du.

**14. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

I. tituluari beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa.

Tituluaren amaieran gehitu eta gainerako artikulua berrituz zenbakituko lirarteke.

“8. artikulua. Animalia populazioen kontrola.

1. Kaltegarritzat jotzen diren animalien kontrol espezifikoak egin daitezke, betiere babestutako espezieetako aleak ez badira. Uztak babestea hel-

buru duten praktikek ez dute ondorio izanen, inondik ere, kaltegarriak ez diren animalien suntsitze masiborik. Hala ere, kalteak ekiditeko beste modurik ez dagoenetan, Ingurumen Departamentuak baimendu dezake, modu arrazoituan eta salbuespen gisa, babestutako espezieen aleak harrapatzea edo espezie horiek kontrolatzea.

2. Kaleko katuak eta hiri-usoak lege honek babestutako etxe-animaliatzat hartuko dira, eta horrek esan nahi du animalioek eskubidea dutela kolonia behar bezala kontrolatuetan –populazioaren eta osasunaren aldetik– bizitzeko. Kontrol- eta babes-zerbitzu hori gauzatzeko, Foru Administrazioak eta toki administrazioek lankidetzak akordioak egiten dituzte animaliak babesteko elkarteekin; elkarteok bitartekari lana egiten dute udalen eta koloniak zaintzen dituzten pertsonen artean. Debekatuta dago kontratatutako enpresek edo udaletako langileek animalioek sistematikoki harrapatzea eta akabatzea.

3. Debekatuta dago gai itsasgarriak erabiltzea animalia ornodunak kontrolatzeko, lika izan ezik; horretarako, Ingurumen Departamentuaren baimen berezia beharko da, eta, baldintzak zorrozki kontrolatuta, erabiliko da modu selektiboan eta txori kopuru txikietarako, birigarroak ehizatzeo eta txori fringilidoak bizirik harrapatzeo.”

Zioak: Animalien populazioak kontrolatzeko metodo berriek, azkeneko hamarkadetan era arrakastatsuan erabili baitira European, behartzen gaituzte berrikustera hemen erabilitako metodoak. Katuen kaleko populazioen kasuan, metodoa da katuak harrapatzea, antzutea eta beren ingurunera itzularaztea; horrela, animalioek ez dira kontrolik gabe ugaltzen, populazioarengan ere ez da eragin gaitzesgarririk gertatzen eta katu kopuru orekatu bat izatearen alde onak ere lortzen dira.

Usoen kasuan, zenbait hiritan saiatutako kontrol prozedurak (harrapaketak, desagerrarazteak, etab.), krudelak eta herritarren gehiengoaren nahia-aren kontrakoak izateaz gain, ez dira eraginkorrak gertatu eta garestiak izan dira. Hirietan usoen jaitza-tasa kontrolatzeko, bada aurrekoaren ordezeko metodo oso eraginkor bat, eta da elikadura antis-orgailudun kontrolatua ematea.

## 15. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluan 1. idatz-zatia osorik kentzeko zuzenketa.

Zioak: Instalazio pribatuak ez direnez aipatzen, uler daiteke horietan baimenduta dagoela animalioek hiltzea zehaztu gabe zein diren hori justifikatzen lezaketen arrazoiak edo arauak.

## 16. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“1. Debekatuta dago txakurrak eta katuak hiltzea administrazio publikoek lagun egiteko animaliak mantentzeko prestaturiko instalazioetan, salbu eta erregelamendu bidez ezartzen diren osasun-arrazoiak tartean direnean.

Txakurren eta katuen populazioa kontrolatzeko modua izanen da animalion antzute-kanpainak sustatzea, eta Foru Administrazioak osorik edo hein batean finantzatzeko dituzte antzuteok.

Animaliak jasotzeko zerbitzuaren kudeaketa eta Nafarroako Gobernuaren animaliak babesteko zentroaren kudeaketa soilik animaliak babesteko lanean diharduten entitateek egin ahal izanen dute, eta horretarako jartzen diren diru-kopuruak egokiak izanen dira egin beharreko lanari aurre egiteko, hau da, jasotako animaliak mantentzeko eta zaintzeko. Animaliak babesteko lanean diharduten GKE-ek modua izanen dute Nafarroako Zerga Ogasunaren pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan “beste gizarte helburu batzuetarako” biltzen den ehunekoaren banaketan parte hartzeko.”

Zioak: Animalien populazioa kontrolatzeko modu gisa txakurtegietan animaliak hiltzearen debekua jasota badago ere, idatz-zati hau luzatu egin da kontrol horri alternatiba bat emateko, ziurtatzeko egonen direla beharrezkoak diren diru-kopuruak, aipatutako zerbitzuen arduradunek lege hau onestean egin beharreko aldaketak egin ahal ditzaten, hemendik aurrera zeregina ez baita izanen “jaso eta hil”.

## 17. ZUZENKETA

### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluan testu zati bat gehitzeko zuzenketa.

Hala, “lagun egiteko animaliak mantentzeko prestaturiko instalazioetan” eta gero hau gehitzea proposatzen dugu: “eta gune zoologikoetan oro

har, salbu eta arrazoi humanitarioak tartean direnean”.

Zioak: Lege testua hobetzen du.

## 18. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“2. Txakurrak eta katuak dauzkatenek identifikatuta eduki beharko dituzte, homologatutako mikrotxip baten bidez. Animaliei ez diete ihes egiten utziko.”

Zioak: Zakurrei mikrotxipak jarrita, ikusi da animalia gutxiago abandonatzen direla, eta horrek errazago egiten du, gainera, galduz edo lapurtuz gero, jabeek animaliak laster berreskuratzea; horregatik, neurri hori bera katuentzat ere jarri beharko litzateke, eta, hala, kaleko katu-koloniak ugaritzea ere ekidinen litzateke. Era berean, partikularrei kumeak haztea debekatzearekin, kumeei buruz aritzeak ez du zentzurik.

## 19. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikuluari beste bi idatz-zati, 4.a eta 5.a, gehitzeko zuzenketa.

“4. Norbaitek animalia basatiak baditu edo baimendutako etxe-animalia exotikoak, eta beren ezaugarriengatik kalteak eragin badiezazkiekete pertsoneri, beste animalia batzuei, gauzei, bide eta espazio publikoei edo ingurune naturalari, pertsona horrek animalioi gatibu izan beharko ditu, hala ere moduz non ziurtatuta izan beharrezko segurtasun-neurriak. Halaber, ezin izan beharrezko erakutsi edo paseatu bide eta espazio publikoetan, eta erantzukizun zibileko aseguru poliza bat ere izan beharko du sinatua.

5. Animalia basatiak edo exotikoak maskota gisa saltzeko eta edukitzeko debekua erregelamenduz arautuko da; uneotan, horrelakoak dauzkaten jabeek horiek izaten jarraitu ahalko dute, animaliak hil arte; abandonatuta dauden loroak, papagaiak, iguanak eta abar beste jabe batzuei adopzioan emateko modua ere izan beharrezko da, animalia exotikoetan espezializatutako erakunde babesle bidez.”

Zioak: Jende gero eta gehiagok dituen animalia basatiak edo lagun egiteko animalia exotiko-

ak, eta horiek kalteak eragin diezazkiekete pertsoneri nahiz beste animalia batzuei, eta problemak eragin ditzaketenez ingurune naturalean, edo problemak dituztenez hiri-inguruetara eta gure klimara egokitzeke, arautu beharra dago gai hau.

## 20. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proposatzen da 3. idatz-zatitik hurrengo testua kentzea: “Epe hori iragaten bada jabeak animalia berreskuratu gabe, beste abisu bat eman beharko zaio, eta hamar eguneko beste epe bat eman beharko zaio. Epe hori animalia jaso gabe iraganez gero, animalia abandonatuzat joko da, eta laga ahalko da, edo adopzioan eman.”

Zioak: Beren kargu dituzten animaliez arduragabetzen diren pertsoneri 10 eguneko beste epe bat emateak ez dakar, gaur egungo egoerarekin alderatuta, inongo hobetzerik edo bermerik.

## 21. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa.

11. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

“Identifikatu gabeko animaliak berreskuratzeke epea hamar eguneko izanen da”

Zioak: Badirudi gehiegizkoa eta justifikaziorik gabea dela identifikatu gabeko eta bere jabeak abandonatutako txakur bat berreskuratzeke epea hogeit egunera zabaltzea, horrek erakusten duena baita jabeak ez duela txakuraren baten interesik.

## 22. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

12 artikulua aldatzeko zuzenketa.

12. artikuluko 4. idatz-zatia osorik kentzea proposatzen da.

Zioak: Betebehar hori kontraesan betean dago administrazio publikoen kontratazioa arautzen duen Nafarroako eta Europako araubidearekin.



**23. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Enmienda de modificación del punto 1 del artículo 12.

“1. Lagun egiteko animaliak edo etxe-animaliak abandonatuta, galduta edo basati bihurtuta daudenean, udalei dagokie horiek jasotzea eta kontrolatzea, eta udalen ardurapekoa izan da, halaber, hiri-animalia basatiak kontrolatzea.”

Zioak: Idatz-zatia oso generikoa da eta ez du zehazten abandonatutako zer animalia motaz ari den. Bestalde, hiri-animalia basatien kontrolik ez du aipatzen.

**24. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

12. artikuluan testu zati bat gehitzea proposatzen da; artikulua horrela geldituko litzateke:

“Udalei dagokie abandonatutako eta galdutako animaliak jasotzea.”

**25. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

12. artikuluari beste idatz-zati bat, 3 bis, gehitzeko zuzenketa.

Beste idatz-zati bat gehitu, 3.a, eta gainerako idatz-zatiak berriro zenbakituko lirateke.

“3 bis. Udalek Foru Administrazioaren edo udalez gaindiko toki erakundeen esku utz dezakete 1. idatz-zatian aipatzen den arduraren; betiere, zerbitzuaren efizientzia hobetzeko printzipioaren pean, eta lege honen aginduen aplikazioaren pean.

Nafarroako Gobernuak kasuko departamentuak lege honen aginduetara egokituko ditu gaur egun txakurrak harrapatze eta jasotzeko dagoen zerbitzua eta animaliak babesteko zentroaren kudeaketa; horretarako, abandonatutako, galdutako edo basati bihurtutako animaliak –lagun egiteko animaliak, etxeak edo hiri-animaliak– jasotzeko gaur egun dauden instalazioak egokitu eta handitu egin behar dira.”

Zioak: Nafarroan udalik gehienak txikiak direnez, eta praktikan, Iruñea eta Tuteran izan ezik, udal bakar batek ere ez duenez instalazio egokirik animaliak jasotzeko, eta zerbitzu hori ere ez du-

nez itunduta, ezta horretarako gaitasun ekonomikorik ere, ziurtatu eta zehaztu egin beharko litzateke nork duen zerbitzu horiek bere gain hartzeko ardura instituzionala. Nafarroako Gobernuak, dagoeneko, ari da horretan, baina zehaztu eta zabaldu egin beharko lirateke zerbitzuaren helburuak.

**26. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Enmienda de modificación del punto 4 del artículo 12.

“4. Animalia abandonatuak edo galduak jasotzeko zerbitzua emateko, udalek edo udalez gaindiko entitateek, aplikatzekoa den araudia betetzeko duten erantzukizuna ezertan kendu gabe, zerbitzua kanpoko entitateekin egitea hitzartu ahalko dute, eta lehentasuna emanen diete animaliak babesteko eta defendatzeko lege eraturik dauden eta irabazi asmorik ez duten elkarterei. Nafarroan horrelako elkarerik ez badago, lagun egiteko animaliak kontrolatzen eta biltzen espezializatutako enprekin kontratatuko da.”

Zioak: Gaztelaniazko testuan bi akats daude: “formativa” esaten du “normativa” beharrean, eta “defensa,” halaber, “defensoras” beharrean.

**27. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

12. artikuluari idatz-zati bat, 5.a, gehitzeko zuzenketa.

“5. Animaliak jasotzeko zerbitzuaren kontrola eta titulartasuna, eta instalazioena ere bai, Nafarroako Gobernuaren Ingurumen Departamentuarena izanen da.”

Zioak: Gaur egun, animaliak babesteko Etxauriko zentroko jasotze zerbitzua eta instalazioak Osasun Publikoaren Institutuaren pean daude; hala ere, ondobidean, Ingurumen Departamentuak arduratu behar luke zerbitzu eta instalazio horiez, animalien babesa berari dagokion gaia baita, berak ezagutu beharrekoa eta bere helburuetan sartzen denetakoa. Lege proposamen honetan, behin baino gehiagotan aipatzen da departamentu eskuduna, baina berezko izena eman behar zaio ez dadin zalantzarik izan.

**28. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Beste letra bat, g), gehitzeko zuzenketa.

“g) Animaliak erakuslehoetan ez edukitzea.”

Zioak: Lege honen helburua da animaliak babestea; dendetako erakuslehoetan, normalean, kumeak jartzen dituzte, eta jendeak ez ditu bakean uzten, etengabe aritzen baita kristala joz, animalia mugi dadin. Kontuan hartuz kumeak lo egin behar duela egunaren zatirik handienean, eta egunero hamabi orduz egoten direla jendeak ikusteko moduan, egoera hori oso gogaikarria gerta daiteke animalia erantzat, eta horregatik proposatu dugu idatz-zati hori.

**29. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

19. artikulua 1. idatz-zatian h) letra gehitzeko zuzenketa.

“h) Animaliak saltzean, agiri bat ematea non agertuko baita espeziearen identifikazioa, animalia-aren identifikazio zenbakia, beharrezkoa bada, eta gune zoologikoa. Partikularrei eginiko salmentetan, beste agiri bat ere eman beharra dago, animalia bakoitzaren ezaugarriak jasoko dituen, bere beharrak, heziketarako aholkuak eta, halaber, nola eduki eta zaindu behar den osasunari eta ongizateari dagokionez, albaitarien edo biologoen elkargo batek abalatura.”

Zioak: Animaliak, askotan, abandonatzen dira edo ez dute bizirik irauten jabeek ez dakitelako espezie hori zaintzen; horregatik, denda eta haztegietan, kualifikatutako norbaitek erosleari idatziz eman beharko lizkioke animalia-aren eta haren zainketaren gaineko datu guztiak, beste autonomia erkidego batzuetan egiten den moduan.

**30. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Beste kapitulu bat, IV. bis kapitulu, gehitzeko zuzenketa. Hona izenburua: “Potentzialki arriskutsuak diren animaliak” (19. bis-etik hasi eta 19. duodeciesera bitarteko artikulua hartuko lituzke).

19. bis artikulua. Potentzialki arriskutsuak diren animalien zaintza eta kontrola.

1. Animalia bat bere ezaugarriak direla-eta arriskutsua gertatzen bada pertsonentzat edo etxeko animalientzat, udalak edo abeltzaintzaren arloan eskuduna den departamentuak, bere kabuz, edo inork eskatuta, animalia-aren jabeari edo edukitzaileari eskatuko dio har ditzala, horretarako emanen zaion epean, arriskuari aurre egiteko egoiak diren neurriak.

2. Animalia-aren jabea edo edukitzailea den pertsonak ez baditu horretarako ematen zaion epean adierazitako neurriak bete, animalia konfiskatu eta higienaren eta osasunaren aldetik behar diren kondizioak dituen gordailu batera eramanen da; hori, legearekin bat, abeltzaintzaren arloan eskuduna den departamentuak eginen du.

3. Zortzi egun baliodun eta gero jabeak edo edukitzaileak ez baditu proposatutako neurriak aplikatu, abeltzaintzaren arloan eskuduna den departamentuko albaitaritzaz-zerbitzu ofizialek ikuskapena egin ondoren, honela jokatu da:

a) Errabiarenganako sentsibilitatea duten espezieei, hozkada bidez transmiti dezaketenei, lege honetan xedatutakoa aplikatuko zaie.

b) Gainerako espezieei dagokienez, abeltzaintzaren arloan eskuduna den departamentuak doan lagatzen ahalko du animalia, edo hil.

4. Lege honek xede dituen animaliak, pertsonentzat edo beren ondasunentzat arriskutsuak gertatzen direnean, harrapatu edo hil egin ahalko dira, kasuan kasuko presarekin eta agintari esku-dunaren kontrolpean.

19. ter artikulua. Potentzialki arriskutsuak diren animalien sailkapena.

1. Potentzialki arriskutsuak diren txakurrak, zeinentzat berariazko neurriak xedatu baitira kapitulu honetan, bi kategoriatan banatuko dira:

1.a Erasoko txakurrak.

2.a Zaintzarako eta defentsarako txakurrak.

Erregelamenduz ezarriko da txakur moten zerrenda bat eta zer kategoriatakoak diren.

2. Abeltzaintzaren arloan eskuduna den departamentuko albaitaritzaz zerbitzu ofizialek erabakiko dute, beren kabuz edo norbaitek hala eskatuta, txakur jakin batzuk bi kategoria horietakoren batean sartu beharrekoak ote diren, zer arrazatakoak diren gorabehera.

3. Abeltzaintzaren arloan eskuduna den departamentuko albaitaritzaz zerbitzu ofizialek erabakiko dute, beren kabuz edo norbaitek hala eskatuta, beste espezie batzuetako animaliak potentzialki arriskutsu gisa sailkatu behar diren.

19. quater artikulua. Potentzialki arriskutsuak diren txakurren zirkulazioari buruz hartu beharreko neurriak.

1. Bide eta espazio publikoetan, eta bizilagunen komunitateetan, potentzialki arriskutsuak diren txakurrek lotuta egon beharko dute, bi metro baino gutxiagoko soka edo kate luzaezinarekin, muturrekoa ere jarrita eta adinez nagusi den pertsona baten zaintzapean; pertsona batek gehienez ere horrelako zakur bakarra eraman dezake.

2. Erasoko txakurrek debekatuta izanen dute garraiobide kolektiboetara sartzea bai eta leku publikoetan ibiltzea ere, bide publikoetan izan ezik; jendearentzako irekitako lokaletan ere ezin izanen dira sartu eta debekatuta izanen dute, baita ere, bizilagunen komunitateen instalazio kolektiboetan egotea.

19. quinques artikulua. Potentzialki arriskutsuak diren txakurrak izateko lizentzia eta mugak.

1. Potentzialki arriskutsuak diren txakurrak izateko, aurretik lizentzia administratibo bat beharko da; jabea zer udaletan bizi den, udal horrek emanen du.

2. Hurrengoek ezin izanen dute lortu artikulua honetan aipagai den lizentzia.

a) 18 urtetik beherako pertsonak.

b) Hurrengo delitu hauetakoren bat dela-eta kondenatutakoak: giza hilketa edo torturak, askatasunaren edo osotasun moralaren aurkako delituek, banda armatuarekiko elkartzeko edo narkotrafikoa. Potentzialki arriskutsuak diren animaliak edukitzearen arloko arau-hausteengatik zehapenak dituztenek ere ezin izanen dute lizentzia eskuratu.

c) Gaitasun psikologikoari buruzko ziurtagiri bat ez dutenek.

d) Ez dutenek egiaztatzen formalizatuta dutela beren animaliek hirugarrenei eragin diezazkieketen kalteengatik erantzukizun zibileko aseguru bat.

19. sexes artikulua. Potentzialki arriskutsuak diren animaliak edukitzeko bete beharreko baldintzak.

Potentzialki arriskutsuak diren animaliak edukitzeko lizentzia lortzeko, hurrengo baldintzak bete beharko dira, animalia bizirik dagoen denbora gutxian:

a) Animaliak identifikazioa beharko du eta osasun-txartela, lege honen xede diren animalientzat unean-unean indarrean dagoen legediak agindutako moduan.

b) Errabiaren aurkako nahitaezko txertoa, indarrean dagoena, gaixotasun hori harrapa dezaketan animalientzat.

c) 1. kategoriako zakur arrak eta emeak antzuta daudela dioen albaitaritza-ziurtagiria. Ebakuntza kirurgiko horretatik salbuetsita egonen dira hautapenerako edo ugalketarako erabiltzen dituzten eta abeltzaintza arloan eskuduna den departamentuak baimendutako pertsona fisiko edo juridikoenak diren txakurrak; salbuetsita egonen dira, halaber, armadako txakurrak, Estatuko segurtasun indar eta kidegoenak, toki polizietako kidegoenak, aduanetakoak, laguntza-zerbitzu publikoetakoak eta baimendutako segurtasun konpainia pribatuak.

19. septies artikulua. Potentzialki arriskutsuak diren animalien inportazioa eta merkataritza.

Potentzialki arriskutsuak diren animalien inportazioa, salmenta edo edozein titulu bidezko eskualdatzea gai horien gaineko oinarrizko legedian xedatutakoaren pean egonen da.

19. octies artikulua. "Potentzialki arriskutsuak diren animalien" erregistro-atala.

1. Lege honetako 4. artikulua araututako "Erregistro informatiko zentralizatua" aurreikusitako "Potentzialki arriskutsuak diren animaliak" izenezko atala koordinatuta egonen da udal erregistroekin, eta administrazio publiko guztiek eta agintari eskudunek izanen dute atal hori kontsultatzeko modua, bai eta bertan jasotako datuak ezagutzeko interes zilegia dutela egiaztatzen duten pertsona fisiko edo juridiko guztiek ere.

2. Atal horretan, non potentzialki arriskutsuak diren animaliak espezieka sailkatuta agertuko baitira, gutxienez ere jabearen datuak jasoko dira, bai eta animalia ezaugarriak ere, identifikatu ahal izateko, eta bizitokia, zehaztuta ea gizakiekin bizitzeko animalia den edo beste helburu batzuetarako erabiltzen den, hala nola zaintzarako, babeserako edo adierazten den besteren baterako.

19. novies artikulua. Animalia arriskutsuen haztegiak eta salmenta-zentroak.

Animalia arriskutsuen haztegiek eta salmenta-zentroek, lege honetan ezarritako lizentziak behar izateaz gain, eta behar den erregistroetan agertu behar izateaz gain, ikuskapenak izanen dituzte aldiari-aldiari, manipulazio genetikoak debekatuta egonen baita baldin eta hori zenbait ezaugarri eta potentzialtasun fisiko edo jokabide agresiboren garapena bultzatzeko bada. Debekatuta egonen da, orobat, ezaugarri horien publizitatea edo suspentzea.

19. decies artikulua. Erregistro informatiko zentralizatuan zer egintza erregistra daitezkeen eta lizentziaren titularrak erregistro horren aurrean dituen eskubideak.

1. Administrazio eskudunaren kasuko lizentzia lortutakoan, pertsona titularrari dagokio inskribatzeko eskatzea, 15 eguneko epean, lege honetako 4. artikuluko erregistro informatiko zentralizatuan.

2. Potentzialki arriskutsuak diren animaliek bere bizitzan zehar sorrarazitako edozein gorabehera animalia bakoitzaren erregistro-orrian jasoko da; orri hori itxiko da animalia berez hiltzen denean edota animalia, bestela, albaitari edo agintari eskudun batek egiaztatuta akabatzen denean. Halaber, lizentziaren titularra den pertsonak jakinarazi beharra dauka udal erregistroan animalia saldu egin duela, eskualdatu, eman, lapurtu egin dutela, hil egin dela, desagertu edo galdu; hori animalien erregistro-orrian jasoko da, eta erregistro informatiko zentralizatuan ere behar adinako isla izanen du. Agintari administratibo eta judizialek, gorabeheraren baten berri baldin badute, abeltzaintzaren arloan eskuduna den departamentuari jakinaraziko diote zer gorabeheraren berri izan duten, erregistroan jasota gera dadin.

3. Animalia bakoitzaren erregistro-orrian, era berean, albaitaritza-zerbitzu akreditatuek animaliarri buruz emandako osasun-ziurtagiria jasoko da; zerbitzuok urtero egiaztatu beharko dute animalien osasun egoera eta ez daukala bereziki arriskutsua egiten duen gaixotasunik edo nahasmendurik.

4. Erregistroaren arduradun diren agintariek jakinarazi eginen dizkiete eskudunak diren agintari administratibo edo judizialei erregistroan jasotako gorabehera guztiak, balora ditzaten eta, behar izanez gero, kautela- edo prebentzio-neurriak har ditzaten.

5. Animalien jabeak ez badu betetzen artikulua honetan xedatutakoa, kasuko zehapen administratiboa jarriko zaio, lege honetan ezarritakoarekin bat.

19. undecies artikulua. Potentzialki arriskutsuak diren animalien heziketa eta gaitasun-ziurtagiria.

1. Kapitulu honek aipagai dituen animalien heziketa soilik egiten ahal dute abeltzaintzaren arloan eskuduna den departamentuak baimendutako pertsonak; departamentuak, horretarako, hezitzailearen gaitasuna egiaztatzen duen ziurtagiria emanen du.

2. Gaitasun-ziurtagiria eskuratzeko, aurretik gaitasun proba edo ikastaro batzuk egin beharko dira, edota eskarmentu bat egiaztatu; abeltzaintza-

ren arloan eskuduna den departamentuko titularrak zehaztuko du ebazpen bidez zer izanen den egin edo egiaztatu beharrekoa.

3. Gaitasun-ziurtagiria duen hezitzaileak, hiru hilean behin, erregistro informatiko zentralizatuari jakinaraziko dio zein bezerok heziarazi dituen epe horretan potentzialki arriskutsuak diren animaliak; bezeroen izen zerrendarekin batera, animalien identifikazioa ere igorriko da, animalien erregistro-orrian jasota gera dadin, eta espresuki adieraziko da zer heziketa eman zaion.

19. duodecies artikulua. Potentzialki arriskutsuak diren animalien garraioa.

1. Potentzialki arriskutsuak diren animalien garraioa egin beharko da Potentzialki Arriskutsuak diren Animaliak Edukitzeari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legean ezarritakoarekin bat.

2. Potentzialki arriskutsua den animalia bat ekartzen bada beste autonomia erkidego batetik Nafarroako Foru Komunitateko lurralde-eremura, hala modu iraunkorrean nola aldi baterako, lekuz aldatu aurretik abeltzaintzaren arloan eskuduna den departamentuari jakinarazi beharko zaio.

3. Animalia horiek autonomia erkidegoan modu iraunkorrean gelditzekoak badira, edo hiru hilabete baino gehiagoan, animalien jabeak kasuko udalaren erregistroan inskribatu beharko ditu.”

Zioak: Lege testua hobetu egiten du.

### 31. ZUZENKETA

#### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“4. Animaliak babesteko eta defendatzeko elkartek departamentu eskuduna eta udalak premiari ahalko dituzte ikuskapenak egin ditzaten irregulartasunen-zantzuak dauden kasu zehatzean. Nafarroako Gobernuak laguntzak emanen dizkie entitate laguntzailearen titulua lortu duten elkarteei. Laguntza horien xedea izanen da lagun egiteko animaliak babesteko eta defendatzeko jarduerak egitea, familia kualifikatuekin, txakurrak eta katuak esterilizatzeko programetan eta herritarrek sensibilizatzeko kanpainetan.”

Zioak: Parlamentua animaliak babesteko lege berri bat egiten ari den honetan, herritarrek gaur egun jabetuta baitaude babes horren beharraz, paradoxa bat gertatzen da, eta da Nafarroako Gobernuak zenbait departamentu animaliekin zerikusia duten aurrekontu-kontusailak dituztela,

baina ez dagoela gaur egun inongo kontusailik animaliak babesteko; beraz, justua litzateke laguntza horien nahitaezkotasuna ezartzea eta ez iza-tea borondatezkoak.

### 32. ZUZENKETA

#### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

23. artikuluan 1. idatz-zatiko a) letran katuen errolda kentzeko zuzenketa. Testua honela geldituko litzateke:

“a) Txakurren eta erregelamendu bidez ezartzen diren espezieen errolda ezarri eta egitea.”

Zioak: Katuen errolda bat sorrarazten da, eta foru lege proposamenean ez da inola ere horren beharrik justifikatzen.

Errolda berri hori ez da nahitaezkoa kontuan hartzen badugu epizootien arloan indarrean dagoen araudia, eta ez du sorburu, ezta ere, gizakien zein animalien osasuna zoonosiaren aurka babestearen arloan lan egiten duten nazioarteko erakundeek emaniko inongo jarraibide.

### 33. ZUZENKETA

#### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

23. artikulua aldatzeko zuzenketa.

23. artikulua honako testu honekin ordeztuko zuzenketa:

“23. artikulua. Osasun txartela.

Lagun egiteko animaliek osasun-txartela izan beharko dute erregelamenduz ezarritako kasuetan eta ezaugarriekin.”

Zioak: Iruditzen zaigu legearen xedea argiago gelditzen dela eta lege testua hobetu egiten duela.

### 34. ZUZENKETA

#### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, 23. bis, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“23. bis artikulua. Lagun egiteko animalien identifikazioa eta errolda.

1. Txakurrak eta katuak indibidualki identifikatu beharko dira mikrotxip baten bidez, erregelamenduz ezartzen den moduan, eta, betiere, identifikatuta egon beharko dute saldu edo laga aurretik. Identifikazioa hiru hilabete bete aurretik egin beharko da nahitaez.

2. Txakurrak eta katuak zer kontzejutan egon ohi diren, kontzeju horretan erroldatu beharko dira jaiotze eta hiru hilabeteko epean, edo eskuratu eta hamabost eguneko epean.

3.. Beste autonomia erkidego batzuetatik txakurrak eta katuak ekartzen badira Nafarroako Foru Komunitateko lurralde-eremura hiru hilabete baino gutxiagorako, animalia horiek erregelamenduzko mikrotxipa beharko dute eta, zer udaletara joaten diren, udal horri aldeztu aurretik jakinarazi beharko zaio, edo, bestela, abeltzaintzaren arloan eskuduna den departamentuari. Txakurrak eta katuak hiru hilabete baino gehiago egoten badira Nafarroako Foru Komunitatean, erroldatu egin beharko dira bizi diren udalean.

4. Abeltzaintzaren arloan eskuduna den departamentuak erabaki dezake lege honek xede dituen zer beste animalia egin behar diren indibidualki identifikatu eta erroldatu.”

Zioak: Lege testua hobetzen du.

### 35. ZUZENKETA

#### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

24. artikuluan 4. idatz-zatiko h) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa animalia-abandonatzea bi aldiz tipifikatzea arau-hauste oso larritzat, hala egiten baita 24. artikuluko 4. idatz-zatiko c) eta h) letretan; izan ere, zehatu beharreko jokabidea bietan bera da, hau da, animalia abandonatzea.

### 36. ZUZENKETA

#### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

24. artikulua aldatzeko zuzenketa.

24. artikuluko 2., 3. eta 4. idatz-zatiak aldatzea proposatzen da, baita 24. artikuluan jasota ez eta 2. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritako dauden behar guztiak ere, zehazki b), d), g), j), k) eta n) letretakoak.

Zioak: Animalien babesaren arloko debekuen urratzea nahitaez jo behar da arau-haustetzat eta dagokion zehapena ezarri behar zaio.

### 37. ZUZENKETA

#### NAFARROA BAI

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

24. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letra aldatzeko zuzenketa.

“c) Lagun egiteko animaliak hemezortzi urteko adinaz beherakoei eta ezgaituei eskualdatzea, guraso-ahala, tutoretza edo jagoletza duten pertsonen baimenik gabe.”

Zioak: Adin nagusitasuna gehienetan 18 urte-tan dagoenez ezarrita, hori litzateke animalia baten jabe izateko gutxieneko adina; izan ere, adingabe baten arduragabetasuna arriskutsua izan daiteke besteentzat.

### 38. ZUZENKETA

#### NAFARROA BAI

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

24. artikuluko 4. idatz-zatiko c) letra aldatzeko zuzenketa.

“c) Animalia bat abandonatzea, dela etxekoa, lagun egitekoa edo fauna aloktonokoa.”

Zioak: Kontuan hartuta lege honen helburua dela etxeko animaliak eta fauna aloktonoa babestea, letra horretan ere agertu behar du erreferentzia horrek.

### 39. ZUZENKETA

#### NAFARROA BAI

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

24. artikuluko 4. idatz-zatiko e) letra aldatzeko zuzenketa.

“e) Txakurrak, katuak eta ekidoak etengabe lotuta edukitzea.”

Zioak: Sarritan izaten ditugu kasuak non animaliak balkoietan edo etxabeetan modu iraunkorrean eduki ohi diren itxita; hori animaliei tratu txarrrak ematea da, batzuetan osasun psikikoa ere galtzen baitute betiko. Horrelako kasuetan, zaldiak, poneyak, astoak eta abar ere ikusi ohi dira, eta, hala, pentsatzen dugu debekua horietara ere zabaldu behar dela. Animalioak, zakurrek bezala, egunero daukate irteteko eta ariketa egiteko beharra, eta horrek legean agertu behar du.

### 40. ZUZENKETA

#### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

24. artikuluari 3. idatz-zatian beste letra bat gehitzeko zuzenketa.

“m) Administrazio publikoetako erroldari ez jakinaraztea jabe-aldaketak edo animalien bajak”

Zioak: Egokia iruditzen zaigu zehatztea administrazio publikoetako erroldetan ez jakinaraztea animalien jabe-aldaketak edo bajak.

### 41. ZUZENKETA

#### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

24. artikuluari 3. idatz-zatian beste letra bat gehitzeko zuzenketa.

“n) Albaitariak ez betetzea foru lege honek ezartzen dizkien betebeharrak.”

Zioak: Albaitariak berriazko ardurak dituzte animalien babesaren arloan. Foru lege proposamenak hala aitortzen du, eta albaitarien esku uzten ditu ardura horiek; beraz, iruditzen zaigu ardura horiek betetzen ez direnerako zehapenak ezarri beharra dagoela.

### 42. ZUZENKETA

#### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

26. artikuluari beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“4. Arau-hauste oso larriak hiru urteren buruan preskribatuko dira, larriak bi urteren buruan eta arinak sei hilabeteren buruan. Arau-hausteak preskribitzeko epea araua hausten den egunetik zenbatzen hasiko da. Zehapen prozedura hasteak, interesduna jakinaren gainean dela, preskripzioa etenen du.”

Zioak: Zehapenen preskripziorako epeak ezarri beharra dago.

### 43. ZUZENKETA

#### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluari izenburu hau gehitzeko zuzenketa: Animaliak edukitzeko baldintzak.

Zioak: Lege testua hobetzen du.

**44. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

II. titulua aldatzeko zuzenketa.

“II. Titulua. Lagun egiteko animaliak eta etxeke animaliak”

Zioak: Legearen xedean etxeke animaliak aipatzen dira, eta, horregatik, erreferentzia horrek agertu behar du tituluan.

**45. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

III. tituluaren izenburua aldatzeko zuzenketa.

III. tituluaren izenburua aldatu eta honela geldituko da:

“Fauna aloktonoa edo ez autoktonoa”

Zioak: Proposamena idaztean nahi gabe eginko akatsa da, zalantzarik gabe, eta nahitaez dago zuzendu beharra.

**46. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

IV. tituluaren izenburua aldatzeko zuzenketa. “Errolda, ikuskapena eta zaintza” beharrean, “Baldintza administratiboak, identifikazioa eta errolda” jartzea.

Zioak: Iruditzen zaigu legearen xedea argiago gelditzen dela eta lege testua hobetu egiten duela.

**47. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenean testu zati bat kentzeko zuzenketa.

Zioen azalpeneko 4. lerrokadan, testu zati hau kentzea proposatzen da: “jomuga nagusizat dauka herritarrek eta botere publikoek gai honen inguruan duten sentiberatasuna areagotzea”

Zioak: Foru lege proposamen honen jomuga nagusia da animaliak babestea.

**48. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenean testu zati bat kentzeko zuzenketa.

Zioen azalpeneko 5. lerrokada kentzeko zuzenketa.

Zioak: Soilik jabeen arduragabekeriarengatik abandonatuak izan diren txakur eta katuak hiltzearen debekua ezartzen da. Hori ez dator bat proposamenaren atarikoan eta artikuluetan esaten denarekin; esate baterako, atariko 2. lerrokadan esaten denarekin, 9. artikuluko 1. idatz-zatian esaten denarekin, etab.





---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza eman diezaien eskola-adinean ezgaitasun intelektuala eta mendetasuna duten haurrei.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko urriaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza eman diezaien eskola-adinean ezgaitasun intelektuala eta mendetasuna duten haurrei”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko urriaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza eman diezaien eskola-adinean ezgaitasun intelektuala eta mendetasuna duten haurrei.**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urteko 365 egunetan laguntza eman diezaien eskola-adinean ezgaitasun intelektuala eta mendetasuna duten haurrei, eta arreta berezia eman diezaien ondoko alderdiei:

- “En verano también” edo antzeko beste proiektu bat, ezgaitasun intelektuala eta mendetasun handia edo mendetasun larria duten pertsonen bideratzen dena, Iruñean eta Tuteran ezartzea 2011n, ziurtaturiko zerbitzu gisa.

- Hezkuntza bereziko ikastetxeek arreta eskaintzea oporraldietan, hezkuntza premia berezi handienak dituzten ikasleengan pentsatuta, oporraldietan –Gabonetan, Aste Santuan eta udan– pertsona horiek hartu ahal izateko, barnete-

gi edo eguneko eskola moduan. Horrekin lotuta, beharrezkoa da Nafarroan hezkuntza bereziko ikastetxe gehiago egitea, eta horietako batek behintzat arreta eskaintzen urteko 365 egunetan.

- Oxigena moduko jarduerak egin daitezela, oso interesgarria baita; izan ere, ikasleentzako jarduerak, hezkuntzaren arlokoak ez direnak, eskaintzen ditu oporraldian: ekainaren azken astean, uztailan, abuztuan eta irailaren lehenengo astean.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, entitate publikoen bidez eta toki entitateekin lankidetzan, susta dezan ezgaitasun intelektuala duten pertsonen parte-hartzea antolatzen dituen aisiarako eta kirol-jarduere-tan, eta horrela bete dezan Nazio Batuen Erakundeak ezgaitasunak dituzten pertsonen eskubideei buruz eginiko nazioarteko konbentzioa pertsona horientzat onetsitako eskubidea.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, entitate publikoen bidez eta toki entitateekin lankidetzan, bideak ezar ditzan ezgaitasun intelektuala duten pertsonen eta haien familien parte-hartzea sustatzeko lana eta familia bizitza bateratzeko antolatzen dituen jardura guztietan. Bereziki, premiatzen du zabal dezan elkarrekin eta Administrazio Publikoak antolatutako zaintzaileei atsedena emateko programen eskaintza.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du guztiek diru kopuru egokia bidera dezan ekimen eta programa horiek gauzatzeko, eta, horretarako, urte bat baino gehiagorako itun eta hitzarmenak egin ditzan programa horien garapenarekin konprometituriko entitate eta elkarrekin.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lurralde Koordinazioko Europako Taldeak –Nafarroako, Euskal Autonomia Erkidegoko, Aragoiko eta Akitaniako udalen, taldeen, elkarteen edo zuzenbide publikoko beste edozein erakunderen artekoak– sortzea bultzatzea dezan eta horietan parte har dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko urriaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lurralde Koordinazioko Europako Taldeak –Nafarroako, Euskal Autonomia Erkidegoko, Aragoiko eta Akitaniako udalen, taldeen, elkarteen edo zuzenbide publikoko beste edozein erakunderen artekoak– sortzea bultzatzea dezan eta horietan parte har dezan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko urriaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lurralde Koordinazioko Europako Taldeak –Nafarroako, Euskal Autonomia Erkidegoko, Aragoiko eta Akitaniako udalen, taldeen, elkarteen edo zuzenbide publikoko beste edozein erakunderen artekoak– sortzea bultzatzea dezan eta horietan parte har dezan.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lurralde-lankidetzako Europako Taldeak sor ditzan,–Nafarroako, Euskal Autonomia Erkidegoko, Aragoiko eta Akitaniako udalen, taldeen, elkarteen edo zuzenbide publikoko beste edozein erakunderen artekoak– eta horietan parte har dezan.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abenduaren 30a baino lehen aurkez dezan Nafarroako Herritarren Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Foru Lege proiektua.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko urriaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abenduaren 30a baino lehen aurkez dezan Nafarroako Herritarren Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Foru Lege proiektua.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko urriaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abenduaren 30a baino lehen aurkez dezan Nafarroako Herritarren Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Foru Lege proiektua.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean, eta betiere abenduaren 30a baino lehen, Nafarroako Herritarren Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Foru Lege proiektua/k aurkez dezan/ditzan.

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zor publikoa balira bezala zenbatu ditzan itzaleko bidesariaren bidez finantzatutako azpiegituretatik heldu diren obligazioak.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zor publikoa balira bezala zenbatu ditzan itzaleko bidesariaren bidez finantzatutako azpiegituretatik heldu diren obligazioak”

Legebiltzarrak, 2010eko urriaren 14an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2010eko urriaren 1eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko urriaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

